

ENPRESENTZAKO EKONOMIA ZIRKULAR ARLOKO AHOLKULARIA

Posted on 22/06/2026 by Naider

DESKRIBAPEN OROKORRA

Ahal dela, enpresan ekonomia zirkularrean espezializatutako ingeniari bat (edo goi-mailako zikloko LH) edo gaitasun baliokideak bilatzen ditugu. Profil ideala prestakuntza teknikoa eta ikuspegi estrategikoa duen pertsona bat da, enpresei produkzio-eredu jasangarri eta zirkularragoetarako trantsizioan laguntzeko.

EGINKIZUNAK

Enpresa-eremuan ekonomia zirkularra bideratutako aholkularitza estrategikoko zerbitzuak aktibatzea, kudeatzea eta gauzatzea. Besteak beste:

- Enpresei ekonomia zirkularreko eta jasangarritasuneko estrategiak ezartzeko aholkuak ematea.
- Baliabideak optimizatzeko, hondakinak murrizteko eta energia-eraginkortasuna hobetzeko ekintza-planak diseinatzea.
- Industria- eta enpresa-sektorean ingurumen-inpaktuaren azterketak eta analisiak garatzea.
- Bizi-zikloa aztertzeke metodologiak aplikatzea, prozesuak eta produktuak hobetzeko.
- Ekoberrikuntzako estrategiak eta negozio-eredu zirkularrak diseinatzea.
- Enpresen, zentro teknologikoen eta administrazioen arteko lankidetzaproiektuetan parte hartzea, ekonomia zirkularra sustatzeko.
- Ekonomia zirkularren dibulgazioa eta prestakuntza enpresa-ingurunean.

EZAGUTZA-EREMUAK

- Ekonomia zirkularreko estrategiak industrian.
- Negozio-eredu zirkularrak.
- Ekodiseinua eta bizi-zikloaren analisia.
- Sinbiosi industrialala eta baliabideen optimizazioa.
- Hondakinen kudeaketa eraginkorrerako teknologiak eta soluzioak.
- Deskarbonizazio-estrategiak eta karbono-aztarna.
- Enpresei aplikatutako ingurumen-araudia eta -erregulazioa.

PROIEKTUEN TIPOLOGIA

- Enpresen eta prozesu industrialen karbono-aztarna kalkulatzeko eta murrizteko.
- Ekoizpen-sektoreetan ekonomia zirkularreko estrategiak aztertzea eta diseinatzea.
- Sinbiosi industrialeko planak garatzea eta baliabide partekatuak kudeatzea.
- Bizi-zikloa aztertzekeo metodologiak ezartzea.
- Ingurumen-adierazleak kuantifikatzeko tresnak garatzea.
- Hondakinak murrizteko eta lehengaiak optimizatzeko planak.
- Enpresentzako deskarbonizazio-estragieiei buruzko aholkularitza.
- Ekoberrikuntzako eta zirkulartasuneko proiektuak diseinatzea industria-prozesuetan.
- Energia berriztagarriko eta eraginkortasuneko soluzioak ezartzea sektore pribatuan.
- Enpreetan ingurumen-inpaktua monitorizatzeko behatokiak garatzea.

LOTURA-EREDUAK

- Freelance gisako zerbitzu profesionalen kontratua
- Lan-kontratazioa. NAIDERen staffera lan-kontratuarekin sartzea.

BALDINTZAK

- **Ordainsaria:** Naider-en ordainsaria oso lehiakorra da eta hautagaiaren gaitasunen/esperientziaren/konpromituaren arabera oinarritzen da.
- **Malgutasuna:** Lanpostu honek presentzialtasuna eskatzen du atxikita egongo zaren lantokian, nahiz eta presentzialtasun hori telelaneko formula puntualekin eta beste malgutasun-eskema batzuekin konbinatzen den, kontziliazioa ziurtatzeko.

GUTXIENKO ESPERIENTZIA

Lanposturako eanguratsua den esperientzia profesionala behar da.

LANTOKIA

Bilbo / Donostia

HIZKUNTZAK

Gaitasun osoa **euskaraz**, **gaztelaniaz** eta/edo **ingelesez**.

ESKAERA-PROZESUA

Bidali zure hautagaitza **naider@naider.com** helbidera. Guk diskrezio eta erantzukizun osoz kudeatuko dugu. Bilatzen dugunerako profil interesgarri eta egokiena duten pertsonekin jarriko gara harremanetan.

